

12.ONGIZATEZKO ESTATUAREN KRISIA.

12.1.Ongizatezko Estatuaren jatorria eta edukia.

Ongizatezko Estatuaren izenak adierazten duen moduan, Estatuari dagokio hiritar guztiei ongizate egoera bermatzea. Zein da **ongizate egoera** horren edukia?. Biziraupenetik haratago doan zerbait da, alegia, **duintasunez bizirautea**. Duintasunaren eduki zehatza aldakorra izango da denboran zehar, baina nolabaiteko berme moduko bat izango da beti, bizitzak sortzen dituen ezbeharren aurrean.

Estatu liberalak sortzen duen hiritarraren kontzeptuaren aurrean, hau da, zenbait eskubide zibilak dituen gizakia (gizonezkoa hasiera batean), “**hiritartasun soziala**” aldarrikatuko da. Thomas Marshall soziologoak sortu zuen kontzeptua adierazteko nola, benetako hiritarra izateko, alde zuzenetik hiritar bakoitzak asebeterik izan behar dituela bere oinarrizko behar materialak. Oinarrizko baliabide materialak izatea aurrebaldintza bat da hiritartasun politikora iristeko. Baliabide horiek ez dituenak ezin du parte hartu arlo politikoan berdintasun plano batean. Baina hiritartasun soziala ez da bakarrik eskubide sozialetara mugatzen; eginbehar sozialak ere badaude. Hiritarrak konpromisoa du bere lanarekin gizartearen jardueran parte hartzeko, elkartasun kolektibora bere ale txikia gehituz.

Nola heltzen da egoera horretara?. Eztabaida ugari daude ongizatezko jatorriaz eta bilakaeraz. Langileriaren lorpen bat da edo kapitalismoaren trikimailua bere iraupena ziurtatzeko?Hainbat pauso eman dira gaur egungo egoerara heldu arte, eta gainera, eredu aldakorra da herrialde batetik bestera.

Lehen fase batean zerbitzu sozialak boluntarioak izango dira Estatuaren laguntza eta azken bermearekin. Estatuak diru laguntzak ematen ditu baina oinarrizko finantziarioa hiritarrek eskuetatik dator. Eredu horretakoa dira lanaren mutualidadeak edo osasungintzaren arloko igualak. Sistema honek ezberdintasun nabarmenak sortzen zituen babestu eta babesgabeen artean. Aldi berean Estatuak baditu baliabide gutxi batzuk behar larrian daudenentzat, erabateko pobreak direnentzat.

Bigarren fasean derrigorrezko sistemak bihurtzen dira. Estatuaren diru laguntza eta parte hartzea handiagoa da, baina oraindik jasotzen diren prestazioak lanarekin lotuta daude, eta aldakorrak dira egindako ekarpenaren arabera. Horrela funtzionatzen du oraindik pentsio sistemak edo langabezi saria.

Hirugarren fasea sistemaren unibertsaltasunean oinarritzen da. Zerbitzu hauek zergen bidez finantzatzen dira eta, horrela lortzen da errentaren nolabaiteko birbanatzea. Hau da, merkatuek sortzen dituzten ezberdintasun sozialen aurrean Ongizatezko Estatuak, zerbitzu unibertsalak eskainiz, aukeren berdintasuna bermatzen du; hiritartasun sozialaren benetako garapena, alegia.

Gaur egun printzipio hauek nahiko onartuak izan arren gure gizartean, etengabe kolokan edo zalantzan jartzen dira, eta horregatik hitz egiten da Ongizatezko Estatuaren krisiaz.

12.2.- Ongizatezko Estatuaren arrakastatik hondamendira?.

Aurreko galderan ikusi dugunez, benetako Ongizatezko Estatu emango da zerbitzuen unibertsaltasuna bermatzen denean. Printzipio horren inguruan beti egoten dira eztabaida ugari. Tematienea, eta etengabe agertzen dena, noraino heldu behar den unibertsaltasun hori. Hots, zer den zergen bidez ordaindu behar dena eta zer bestelako ekarpen edo diru laguntzen bidez.

Beste era batera esanda, noraino sar daitekeen Estatu norberaren bizitzan da, alde batetik, eztabaidan dagoena. Batzuen ustez, Estatuak zerbitzuak edo diru laguntzak ematen badizkigu eskubidea du gure sarrerak zenbatekoak diren konprobatzeko, edo zertan erabiltzen dugun Estatuak emandako diru laguntzak. Beste batzuk, aldiz, uste dute horrela pobreentzat bakarrik diren zerbitzuak sortzen direla, eta horrek esan nahi du, bigarren mailakoak izango direla.

Eztabaidan dagoen bigarren arazoa, zerbitzu publikoen finantziazioa eta bideragarritasuna da. Ongizatezko Estatuaren zutabe nagusiak erabateko enplegua eta etengabeko hazkunde ekonomikoa ziren. Estatuak eskaintako zerbitzu publikoak balia garriak izan dira mugikortasun sozial handia lortzeko testuinguru horren barruan. Baina gaur egun, erabateko enplegua ezinezkoa denean, zalantzan jartzen da Estatuaren gaitasuna diru laguntza edota zerbitzu sozial unibertsalak emateko.

Ongizatezko Estatuaren arrakastak izan duen emaitza sozial nagusia gehiengo asebetea eta kontsumista baten agerpena da. Gehiengo horrek ematen die babesa zergen murrizketak edo politika kontserbakorrak proposatzen dituzten alderdi politikoei. Ikuspegi kontsumista batetik baloratzen dute zerbitzu publikoen eskaintza, hau da, nahiago izaten dute behar dituzten zerbitzu horiek pribatuak izatea eta bere poltsikotik ordaintzea. Kontsumitzailearen ikuspuntutik eskaintza ezberdinen artean aukeratzea erakargarriagoa izaten da; gainera, neurrirako zerbitzuak eros daitezke horrela (norbere gustuko hezkuntza, osasungintza, pentsio planak edo aseguruak). Horrek duen ondorio zuzena, zerbitzu publikoen murrizketa izaten da, alegia, gero eta kaxkarragoak bihurtzea, pobreentzat edo beste baliabiderik ez dutenentzako zerbitzuak bilakatuz.

Ongizatezko Estatuaren arrakastaren adibiderik argiena diskriminazio positiboaren politikak izan dira. Izan ere, mendeetan zehar bazterturik izan diren gutxiengoak, aurrerapen sozial nabarmenak izan dute. Baina belaunaldi berrietan horiek dira, politika hauen kontra jartzen direnak; ez dute gogoratu nahi nondik datorkie gaur egun duten kokapen sozial ona. Hau da, bere arrakastatik dator kio Ongizatezko Estatuari hondamendia. Gehiengo asebetea Ongizatezko Estatuaren lorpen bat da, hein handi batean; baina, aldi berean, gehiengo horrek jartzen du zalantzan Ongizatezko Estatuaren etorkizuna. Azken urte hauetan bizi izaten ari garen krisialdiak areagotu egin ditu honelako jarrerak. Elkartasuna mugatuagoa bihurtu da eta irtenbide kolektiboak bilatu beharrean, Ongizatezko Estatu indartuz, gehiengo batek nahiago izaten ditu konponbide indibidualak, merkatuaren bidez lor daitezkeenak.

12.3.- Ongizatezko erregimenen sailkapena.

Ongizatezko Estatuak duen hedapena eta betetzen dituen zerbitzuak asko aldatzen dira herrialde batetik bestera. Egoera hori aztertzerakoan, Gøsta Esping-Andersen soziologoak, nahiago izaten du **ongizatezko erregimenaz** hitz egitea. Norbere beharrak eta arriskuak betetzeko, zerbitzuak ekoizteko hiru aukera daude: merkatuak, familiak eta Ongizatezko Estatuak. Hiru hornitzaile horien artean nola banatzen den ongizatezko zerbitzuen eskaintzak definituko du nolakoa den ongizatezko erregimena.

Hiru ongizatezko erregimen bereizten dira:

- Liberala (anglosaxoia): Estatuak, hein handi batean, arrisku marjinalak betetzen ditu, hau da pobretasun larritik hurbil dauden egoerak. Arrisku nagusien babesa merkatuaren eskuetan uzten da, konponbide indibidualen bultzatuz.
- Sozialdemokrata (eskandinaboa): Estatuak protagonismoa handia du. Zerbitzu unibertsalak eskaintzen ditu, hau da, ongizatea eskaintzea merkatutik kanpo gelditzen da. Oso berdintzailea da eta familiei babes handia ematen die, hau da, familiek dituzten zaintza beharrak estatuak betetzen ditu. Horregatik “desfamiliarizazioa” dela esaten da, familien funtzio tradizionalak bere gain hartzen dituelako.
- Kontserbakorra (Europa hegoaldekoa): Familiak betetzen ditu ongizatezko behar ugari (familiaren koltxoia). Estatuak betetzen dituen arriskuak, nagusiki familiaburuarenak izaten dira (normalean gizonezkoak). Merkatuan eskaintzen dituen ongizatezko hornidura bigarren mailakoa da. Lan merkatuak oso zatikatuak daude: lanean daudenek egoera egonkorra eta nahiko ona izaten dute, baina kanpoan gelditzen direnek egoera kaxkarra dute.

Hiru eredu hauen artean hobeto moldatzen dena egungo krisialdian, eredu sozialdemokrata da. Langabeziaren banaketa berdintzaile bat darama, hau da, ez dago langileen sektore pribilegiatu bat. Familia gazteek mantentzen dute estatuaren babesa eta horrek erraztu egiten du krisiari aurre egiteko.

Eredu kontserbakorrean familiei esker eusten zaio krisialdiari. Familiaren babes hori ez dagoenean (loturak galdu direlako), bazterketa sozialaren arriskua handia da.